1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorrek, hala badagokio, beren tributuei eragiten dieten zerga-onuren zenbatekoa jasoko dute.

2.– Autonomia-erkidegoko Administrazioaren aurrekontu orokorrek halaber jasoko dute Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Jaurlaritzari emandako informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu gastuetan laguntzeko foru-aldundiek egindako ekarpenei dagozkien zerga-onurei buruz.

6. artikulua.– Unibertsaltasun-printzipioa.

1.– Aurrekontu orokorrek kasu bakoitzean likidatzea aurreikusten diren eta kontuan hartu behar diren eskubide eta obligazio guztiak hartuko dituzte, inolako salbuespenik gabe.

2.– Izaera ekonomikoko eskubideak edo obligazioak sorrarazten dituen eragiketa oro dagokion aurrekontuan islatu beharko da. Aurreikusitako eragiketarako aurrekontuak gauzatu ahala erregistratuko dira, kasuan-kasuan aplikatzekoak diren arauen arabera.

2.– Los presupuestos a que se refiere el apartado anterior, integrantes de los Generales, son los siguientes:

- a) El Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma.
- b) Los Presupuestos de los Organismos Autónomos.
- c) Los Presupuestos de los Entes Públicos de derecho privado.
- d) Los Presupuestos de las Sociedades Públicas.
- e) Los Presupuestos de las Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma.
- f) Los Presupuestos de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma.

Artículo 3.– Gestión del régimen económico de la Seguridad Social.

La Seguridad Social se integrará en el sector público de la Comunidad Autónoma, en los términos resultantes de lo previsto en el artículo 18 y Disposición Transitoria Quinta del Estatuto de Autonomía para Euskadi, y, sin perjuicio de lo que resulte de estos preceptos, la gestión de su régimen económico se regirá por lo dispuesto en la presente Ley y demás normas aplicables al régimen presupuestario de la Comunidad Autónoma.

Artículo 4.– Vigencia.

1.– Sin perjuicio de su prórroga, los Presupuestos Generales extenderán su vigencia a un ejercicio económico de duración anual.

2.– El ejercicio económico o presupuestario coincidirá con el año natural.

Artículo 5.– Beneficios fiscales.

1.– Los Presupuestos Generales de la Administración de la Comunidad Autónoma, consignarán, en su caso, el importe de los beneficios fiscales que afecten a sus propios tributos.

2.– Los Presupuestos Generales de la Administración de la Comunidad Autónoma consignarán igualmente la información que facilite al Gobierno el Consejo Vasco de Finanzas Públicas sobre los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco.

Artículo 6.– Principio de universalidad.

1.– Los Presupuestos Generales comprenderán todos los derechos y obligaciones, sin excepción alguna, que, en cada caso, se prevea liquidar y sea necesario atender, respectivamente.

2.– Toda operación de la que se deriven derechos u obligaciones de naturaleza económica tendrá el debido reflejo en el presupuesto respectivo. Las operaciones no previstas serán registradas dentro del proceso de ejecución del presupuesto de acuerdo con las normas aplicables en cada caso.

7. artikulua.– Finantza-oreka.

Lege honen 2. artikulua 2. paragrafoan aipatutako aurrekontuak, finantza-oreka irizpide dela prestatuko dira, aurrekontu bakoitzean diru-sarrerenguztizkoak gastuena berdintzeko moduan.

II. TITULUA
AURREKONTUEN EDUKIA

8. artikulua.– Zehaztapena.

1.– Autonomia-erkidegoko Administrazioen, administrazio-organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetan honako hauek jaso beharko dira, kasu bakoitzerako ezarritako zehaztasun-maila eta egiturarekin:

a) Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoak jasotzen dituen diru-sarrerengoera-orria.

b) Ordainketa-obligazioei eta konpromisozko obligazioei erantzuteko behar diren kredituen egoera-orria.

2.– Autonomia-erkidegoko merkataritza-organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko ente publikoen, sozietate publikoen eta sektore publikoko fundazioen aurrekontuek ekitaldiko gastuen eta diru-sarrerenguzkidurak, inbertsioen eta finantziazioaren zuzkidurak, bai eta gerorako konpromisoen egoera-orria ere jasoko dituzte.

I. KAPITULUA
DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIAK

9. artikulua.– Edukia.

Lege honen helburu diren aurrekontuetako diru-sarrerengoera-orrietan, aurrekontu horiei dagozkien erakundeek aurrekontu-ekitaldian kontzeptu guztiengatik likidatzekoak dituzten finantza-baliabideenguztatekoa jasoko da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko indarreko lege-xedapeneenguztu Bateginean eta kapitulu honetan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. artikulua.– Gutxi gorabeherako edo behin betiko balioa.

Diru-sarrerengoera-orrietan sartutako diru-sarrerak gutxi gorabeherakoak izango dira, egoera-orri horietan bertan edo aurrekontu orokorrenguztean ez beste legerenguztean berariaz kalifikatuta behin-betikobalioa ematen zaizkion izan ezik.

11. artikulua.– Lurralde historikoen ekarpenak.

Foru-aldundiek autonomia-erkidegoari aurrekontuguztuetarako lurralde historikoen kontribuzio gisaguzteindako ekarpenak autonomia-erkidegoko Adminis-

Artículo 7.– Equilibrio financiero.

Los presupuestos a que se refiere el párrafo 2 del artículo 2 de la presente Ley se elaborarán bajo el principio del equilibrio financiero, de modo que, con respecto a cada uno de ellos, la totalidad de los ingresos cubra el importe de los gastos.

TÍTULO II
CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS

Artículo 8.– Determinación.

1.– Los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma, de los Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma contendrán, con el grado de especificación y con la estructura que en cada caso se determine:

a) Un estado de ingresos comprensivo de los distintos derechos económicos a liquidar durante el ejercicio.

b) Un estado de gastos comprensivo de los créditos necesarios para atender el cumplimiento de las respectivas obligaciones, tanto de pago como de compromiso.

2.– Los Presupuestos de los Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma contendrán las dotaciones de gastos y de ingresos, de inversiones y financiación del ejercicio así como un estado de compromisos futuros.

CAPÍTULO I
DE LOS ESTADOS DE INGRESOS

Artículo 9.– Contenido.

Los estados de ingresos de los presupuestos objeto de esta Ley recogerán el importe de los recursos financieros que, por todos los conceptos, se prevea liquidar en el ejercicio presupuestario por las Entidades a que se refieran aquéllos, de acuerdo con lo dispuesto en el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el presente Capítulo.

Artículo 10.– Valor estimativo o definitivo.

Los importes incluidos en los estados de ingresos tendrán valor estimativo salvo que se les atribuya valor definitivo mediante calificación expresa realizada en los propios estados o en virtud de otra ley distinta a la de Presupuestos Generales.

Artículo 11.– Aportaciones de los Territorios Históricos.

Las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales a la Comunidad Autónoma, como expresión de la contribución de los Territorios Históricos a los

trazioaren aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orrian sartuko dira.

12. artikulua.– Zergak eta gainordainak.

Zerga propioak eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoak ezar ditzakeen zergen gaineko gainordainak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kasuan kasuko erakundearen aurrekontuetako sarreraren egoera-orrian jasoko dira.

13. artikulua.– Estatuaren eta bestelako ente publikoen esleipenak.

1.– Autonomia-erkidegoak Estatuko Aurrekontu orokorren kontura hartutako esleipenak erakunde jasotzailearen aurrekontuetako diru-sarreraren egoera-orrian sartuko dira, eta, hala badagokio, haren araubide bereziari lotuko zaizkio.

2.– Berdin jokatuko da beste ente publiko batzuetatik hartutako esleipenekin ere.

14. artikulua.– Zorpetze bidezko diru-sarrerak.

Ente bakoitzak zorpetuz lortzea aurreikusten dituen diru-sarrerak aurrekontuen diru-sarreraren egoera-orrietan jasoko dira, arlo horretan indarrean dauden arauekin bat etorritik.

15. artikulua.– Autonomia-erkidegoko merkataritza-organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko eta sektore publikoko fundazioentzako transferentziak.

1.– Autonomia-erkidegoko merkataritza-organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek, sozietate publikoek eta sektore publikoko fundazioek edozein erakunde edo pertsonarengandik hartutako transferentzia eta diru-laguntza arruntak kasuan kasuko erakundearen jardunaren adierazpen diren diru-sarreraren egoera-orrian sartuko dira.

2.– Erakunde horiek hartutako kapitaleko transferentziak eta diru-laguntzak, kapital-eragiketak edo finantza-eragiketak finantzatzeko diru-baliabide dira, salbu eta hartutako funtsak beste pertsona edo erakunde batzuei kapital-laguntza emateko edo kapitala eskuratzeko izan badira.

16. artikulua.– Gastuen itzulketak eta diruzaintzako gerakinak.

1.– Autonomia-erkidegoko Administrazioaren, administrazio-organismo autonomoen eta Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuen likidaziotik datozen diruzaintzako gerakinen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusia arautzen duen legeak zehaztutako prozeduraren arabera izango da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko indarreko lege-xedapenenen Tes-

gastos presupuestarios de la misma, se recogerán en el estado de ingresos del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma.

Artículo 12.– Impuestos y recargos.

Los impuestos propios y los recargos sobre impuestos que, en su caso, pueda establecer la Comunidad Autónoma, se recogerán en el estado de ingresos del Presupuesto de la entidad que corresponda, perteneciente al sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 13.– Asignaciones del Estado y demás Entes Públicos.

1.– Las asignaciones que perciba la Comunidad Autónoma con cargo a los Presupuestos Generales del Estado se integrarán en el estado de ingresos del presupuesto del Ente receptor y se sujetarán, en su caso, a su normativa específica.

2.– Igual tratamiento recibirán cualesquiera otras asignaciones que se perciban de otros Entes Públicos.

Artículo 14.– Ingresos por endeudamiento.

Los estados de ingresos de los respectivos presupuestos recogerán el importe de los recursos que cada Ente prevea obtener por vía de endeudamiento, todo ello de acuerdo con las normas al respecto vigentes.

Artículo 15.– Transferencias a los Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma.

1.– Las transferencias y subvenciones corrientes que perciban, de cualquier entidad o persona, los Organismos Autónomos Mercantiles, los Entes Públicos de derecho privado, las Sociedades Públicas y las Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma, formarán parte de los estados de ingresos expresivos del desarrollo de las actividades de las respectivas Entidades.

2.– Las transferencias y subvenciones de capital que igualmente perciban las referidas Entidades constituyen para las mismas recursos destinados a la financiación de operaciones de capital o de operaciones financieras, salvo que los fondos percibidos lo hayan sido con la finalidad de conceder a su vez subvenciones y transferencias de capital a otras personas o entidades.

Artículo 16.– Reintegros de gastos y remanentes de tesorería.

1.– La utilización de los remanentes de tesorería procedentes de la liquidación de los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la citada Comunidad, se someterá al procedimiento que establezca la Ley que regule el régimen de la Tesorería General del País Vasco, de acuerdo con lo establecido en el apar-

tu Bateginaren 1. artikuluko 2. paragrafoko e) idatzi-zatian ezarritakoari jarraituz.

2.– Aurreko epigrafean aipatutako aurrekontuetan lortutako gastu-itzulketen ondoriozko diru-sarreraren erabilera lege honetako 92. artikuluan arautzen den birjarpenen araubidearen arabera izango da.

17. artikulua.– Kudeaketako diru-sarrerak.

Autonomia-erkidegoaren eskumenekoak ez diren gastu-proiektuak gauzatzeko beste ente publiko batzuetatik hartutako funtsak ere dagozkien aurrekontuetako diru-sarreraren egoera-orrietan jasoko dira, behar bezala zehaztuta eta berezita.

II. KAPITULUA
GASTUEN EGOERA-ORRIAK

18. artikulua.– Edukia.

Aurrekontuetako gastuen egoera-orriek honako hauek jasoko dituzte, lege honek kasu bakoitzerako zehaztutakoarekin bat etorriz:

a) Aurrez hartutako eta sorrarazitako obligazioak betez aurrekontu-ekitaldiaren kontura agindu edo ordaindutako gastuei erantzuteko beharrezkoak diren ordainketa-kredituak.

b) Konpromiso-kredituak, kredituok onartu diren aurrekontu-ekitaldiaren ondorengoetan gauzatu beharreko egintzak finantzatzeko hartu beharreko obligazio juridikoei aurre egiteko direnak, horretarako dagokion ordainketa-kreditua egina dagoela; hori guztia, lege honetan ezarri bezala.

1. ATALA
ORDAINKETA-KREDITUAK

19. artikulua.– Autonomia-erkidegoko Administrazioa, administrazio-organismo autonomoak eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.

Autonomia-erkidegoko Administrazioaren, administrazio-organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuen diru-sarreraren egoera-orrietan jasotako ordainketa-kredituak:

a) Aurrekontu orokorren legeek eta lege honen arabera egindako aldatetek baimendutako helburuak betetzeko erabiliko dira.

b) Mugadunak dira, hau da, ezin izango da kredituaren zenbatekoa gaintzen duen gasturik konprometitu edo ordaindu. Kredituaren zenbatekotzat

tado e) del párrafo 2 del artículo 1 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

2.– La utilización de los ingresos derivados de reintegros de gastos obtenidos en los Presupuestos a que se refiere el epígrafe anterior se regirá por el régimen de reposición regulado en el artículo 92 de la presente Ley.

Artículo 17.– Ingresos de gestión.

Los estados de ingresos de los presupuestos respectivos recogerán también, con la debida especificación y diferenciación, los fondos que se perciban de otros Entes Públicos para la ejecución de proyectos de gastos en materias cuya competencia no corresponda a la Comunidad Autónoma.

CAPÍTULO II
LOS ESTADOS DE GASTOS

Artículo 18.– Contenido.

Los estados de gastos de los presupuestos respectivos recogerán con la especificidad que para cada caso se determina en la presente Ley:

a) Los créditos de pago necesarios para atender los gastos susceptibles de ser ordenados o pagados con cargo al ejercicio presupuestario en cumplimiento de obligaciones previamente contraídas y devengadas.

b) Los créditos de compromiso destinados a hacer frente a las obligaciones jurídicas que hayan de contraerse para la financiación de acciones cuya ejecución deba efectuarse en ejercicios presupuestarios posteriores a aquel en que tales créditos se aprueben, y a cuyo efecto esté dotado el correspondiente crédito de pago, todo ello en los términos establecidos por la presente Ley.

SECCIÓN 1.ª
LOS CRÉDITOS DE PAGO

Artículo 19.– Administración de la Comunidad Autónoma, Organismos Autónomos Administrativos y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma.

Los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma:

a) Se aplicarán al cumplimiento de las finalidades para las que fueron autorizados por las Leyes de Presupuestos Generales y por las modificaciones practicadas de acuerdo con los preceptos de esta Ley.

b) Tendrán carácter limitativo, no pudiendo comprometerse ni pagarse ningún gasto más allá de su importe, entendiéndose por tal el importe original-

hartuko da kreditu horretarako hasieran onartu zen zenbatekoa edo, hala badagokio, lege honetan jasotako arauen arabera aldatutako zenbatekoa. Hala ere, ordainketa-kredituak konpromiso-kreditu baten xede ere badiren obligazioei dagozkienean, bi kredituen zuzkiduren baturaren adinako zenbatekoa konprometitu ahal izango da.

20. artikulua.– Kreditu orokorra.

1.– Autonomia-erkidegoko Administrazioaren, administrazio-organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuaren gastuen egoera-orrian ordainketa-kreditu orokor bat sartu ahal izango da, beste ordainketa-kreditu batzuen eskasiei erantzuteko edo zuzkidurarik ez duten behar berriei aurre egiteko, edota zabalgarritzat jotako kredituak finantzatzeko.

2.– Hasierako zuzkidurak nahiz gerora egin daitezkeen gehikuntzek, bai edozein aurrekontu-kreditutatik datozen soberakinen konturakoek, bai diruzaintzako gerakinen konturakoek, ezin izango dute gainditu autonomia-erkidegoko Administrazioaren, administrazio-organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetako ordainketa-kredituen guztirako zenbatekoaren % 5, hurrenez hurren, ekitaldiko edozein unetan.

3.– Aurrekontu-gaietan eskumena duen sailburua kreditu orokorraz baliatu ahal izango da ukitutako sailak, organismo autonomoek edo autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoek hala proposatzen badute, baldin eta erabilera edozein aurrekontu-kreditutako soberakinak berriz esleitzeari badagokio. Beste kasuetan, baliatzea Jaurlearitzaren eskumenekoa izango da, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak hala proposatuta.

4.– Ezingo da zuzenean kreditu orokorraren kontura gasturik baimendu.

21. artikulua.– Merkataritza-organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak, sozietate publikoak eta autonomia-erkidegoko sektore publiko-fundazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuetan sartuta dauden ordainketa-kredituek, betiere, merkataritza-organismo autonomoentzako, zuzenbide pribatuko ente publikoentzako, sozietate publikoentzako eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioentzako transferentzia arruntei badagozkie, diru-laguntza izaera izango dute hartzaileentzat, ezarritako mugen barruan, eta haien galerak finantzatzeko izango dira. Artikulu honek aipatzen dituen funtsak soberan jasotzearen ondorioz, erakundeek irabaziak izan badituzte, ekitaldia ixten denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkiote, eta, hala, finkatuta geratuko da diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa.

mente aprobado para dicho crédito o, en su caso, el importe modificado de acuerdo con las normas contenidas en la presente Ley. Sin embargo, cuando los créditos de pago se refieran a obligaciones respecto de las que también esté dotado un crédito de compromiso, podrá comprometerse el importe equivalente a la suma de las dotaciones de ambos créditos.

Artículo 20.– Crédito global.

1.– Dentro del estado de gastos del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma, podrá incluirse un crédito de pago global para atender las insuficiencias en las dotaciones de otros créditos de pago o para hacer frente a nuevas necesidades para las que no exista dotación, así como para la financiación de los créditos calificados de ampliables.

2.– La dotación inicial así como los posibles incrementos que se efectúen, ya sea con cargo a excedentes procedentes de cualquier crédito presupuestario o con cargo a remanentes de tesorería, no superarán el 5% del importe total de los créditos de pago del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma, respectivamente, en cada momento del ejercicio.

3.– El Consejero competente en materia de presupuestos dispondrá del crédito global a propuesta del Departamento, Organismo Autónomo y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma afectados cuando la utilización se refiera a reasignación de excedentes de cualquier crédito presupuestario. En otro caso, las disposiciones serán competencia del Gobierno a propuesta del Departamento competente en materia de presupuestos.

4.– No podrán autorizarse gastos directamente contra el crédito global.

Artículo 21.– Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma.

Los créditos de pago correspondientes a transferencias corrientes con destino a Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma contenidos en los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y dentro de los límites establecidos, tendrán para los perceptores la naturaleza de subvención para financiar sus pérdidas. Al cierre del ejercicio, aquellas entidades que tuvieran beneficios, obtenidos como consecuencia de haber recibido fondos a los que se refiere el presente artículo en exceso, deberán reintegrarlos a la Tesorería General del País Vasco, quedando así fijado el importe definitivo de la subvención.

22. artikulua.– Langile-gastuetarako ordainketa-kredituak.

Dagozkien aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan jasotako langile-gastuetarako ordainketa-kredituak honako era hauetakoak izango dira:

a) Autonomia-erkidegoko Administrazioaren, administrazio-organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen kasuan, mugadunak izango dira bai kredituaren zenbatekoari dagokionez bai plantillari dagokionez.

b) Autonomia-erkidegoko merkataritza-organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko ente publikoen, sozietate publikoen eta sektore publikoko fundazioen kasuetan, mugadunak izango dira kredituaren zenbatekoari dagokionez, salbu eta funtzionario diren langileen gastuetarako ordainketa-kredituak badira; horiei aurreko idatzi-zatian ezarritakoa aplikatuko baitzaie.

23. artikulua.– Zor publikoaren amortizazioa eta interesak kitatzeko ordainketa-kredituak.

Autonomia-erkidegoko Administrazioaren, administrazio-organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen zor publikoaren amortizaziorako eta interesak kitatzeko ordainketa-kredituak, aurrekontuetako gastuen egoera-orrian sartuzat joko dira beti, eta Jaurlaritzak aldatu egin ahal izango ditu, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren proposamenez. Era berean, Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari adieraziko zaio, emandako jaulkipen-arauei edo indarrean dagoen araudiaren arabera bihurketa-baldintzei egokitzeko.

2. ATALA KREDITU ZABALGARRIAK

24. artikulua.– Kalifikazioa.

1.– Ordainketa-kredituak zabalgarritzat joko dira, baldin eta hasiera batean mugadunak izan arren haien zenbatekoa handitu badaiteke, ezarrita dauden edo ezarriko diren arauzko formalitateak bete ondoren, honako hauek kontuan hartuta:

a) Indarrean dauden xedapenen arabera, kasuan kasuko kredituari edo kredituei zuzenean lotutako diru-sarrerak benetan jaso izana.

b) Dagokion ekitaldiko berariazko obligazioen aitortpena, lege-mailako xedapenen arabera.

c) Ekitaldi bakoitzerako aurrekontu orokorren legeek ezarritako mugak eta baldintzak.

Artículo 22.– Créditos de pago para gastos de personal.

Los créditos de pago para gastos de personal recogidos en los estados de gastos de los presupuestos respectivos, tendrán el siguiente carácter:

a) En el caso de la Administración de la Comunidad Autónoma, de los Organismos Autónomos Administrativos, y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma, tendrán carácter limitativo tanto en lo relativo a la cuantía del crédito como en lo concerniente a la plantilla.

b) En el caso de los Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma, tendrán carácter limitativo en lo relativo a la cuantía del crédito con la excepción de los créditos de pago destinados a los gastos de personal de sus propios funcionarios, que se registrarán por lo establecido en el apartado anterior.

Artículo 23.– Créditos de pago para intereses y amortización de la Deuda Pública.

Los créditos de pago destinados a satisfacer los intereses y la amortización de la Deuda Pública de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma se entenderán siempre incluidos en el estado de gastos de los respectivos presupuestos y podrán ser modificados por el Gobierno a propuesta del Departamento competente en materia de presupuestos, dando cuenta a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco con el fin de ajustarse a las condiciones de su emisión o de su conversión efectuada de acuerdo con la normativa vigente al respecto.

SECCIÓN 2.^a LOS CRÉDITOS AMPLIABLES

Artículo 24.– Calificación.

1.– Recibirán la calificación de ampliables aquellos créditos de pago que, teniendo en principio carácter limitativo, puedan ver incrementada su cuantía, previo cumplimiento de las formalidades reglamentariamente establecidas o que se establezcan, en función de:

a) La efectiva recaudación de los ingresos que, de acuerdo con las disposiciones vigentes al respecto, hayan sido afectados directamente al crédito o créditos de que se trate.

b) El reconocimiento de obligaciones específicas del respectivo ejercicio según disposiciones con rango de ley.

c) Los límites y condiciones que establezcan las Leyes de Presupuestos Generales para cada ejercicio.

d) Dagokion aurrekontu orokorren legea indarrean jartzean eratu gabe zeuden autonomia-erkidegoko sektore publikoko enteen aurrekontuen onarpena, lege honetan xedatutakoaren arabera.

2.– Zabalgarritzat jotako ordainketa-kredituak berriaz agertuko dira zabalgarri gisa aurrekontuetako gastuen egoera-orrian.

3.– Zabalgarritzat jotzea artikulua honetako 1. paragrafoaren c) idatzi-zatian ezarritakotik bakarrik eratorzen bada, gastuen egoera-orrietan kredituak zenbateraino gehitu daitezkeen adieraziko da. Horrelakoetan, Jaurlearitzak erabakiko du zabaltze hori nola egin, aurrekontu-gaieetan eskumena duen sailaren proposamenez.

4.– Artikulu honetako 1. paragrafoaren d) idatzi-zatian adierazitako kasuan, ente horiei transferitu beharreko ordainketa-kredituak dagokien aurrekontua onartutakoan bertan ezarritako mugaraino zabaldu ahal izango dira.

25. artikulua.– Izaeraz zabalgarri diren kredituak.

Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, honako hauek zabalgarritzat joko dira, dagozkien aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan zabalgarri direla berriaz agertu beharrik gabe:

a) Langileen nahitaezko gizarte-aurreikuspeneko araubideari dagozkion kotizazioetarako ordainketa-kredituak, kontribuzio-araubidean izandako aldaketen ondorioz kasuan-kasuan aplikatzekoak diren xedapenen arabera aitortu eta likidatutako obligazioei dagokien zenbatekoan.

b) Ondoren zehaztutako zuzkidurak, merkataritza-organismo autonomoei bakarrik dagozkienak:

– Organismoarentzat indarrean dauden arauen arabera egindako irabazi-banaketei buruzkoak.

– Aurreikuspen- eta amortizazio-funtsak zuzkitze-koak direnak.

– Merkataritza-organismo autonomoek parte hartzen duten zuzenbide pribatuko ente publikoei eta sozietate publikoei transferentziak egiteko direnak.

c) Diru-laguntza arruntetarako zuzkidurak, aurrez ezarrita dagoenean egindako diru-sarreraren arabera zehaztu behar direla.

26. artikulua.– Diru-bilketagatik zabaltzea.

Ordainketa-kredituen zenbatekoa aldatu egingo da erregelamendu bidez ezarritako arauen arabera, baldin eta kredituei lotu zaizkien diru-sarreraren benetako bilketa dela-eta zabalgarritzat jotzen badira.

d) La aprobación, conforme a lo dispuesto en la presente Ley, de los presupuestos correspondientes a Entes integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma, no constituidos a la fecha de entrada en vigor de la correspondiente Ley de Presupuestos Generales.

2.– Los créditos de pago calificados como ampliables figurarán expresamente como tales en los estados de gastos de los presupuestos respectivos.

3.– Si la calificación de ampliables resultase exclusivamente de lo establecido en el apartado c) del párrafo 1 de este artículo, los estados de gastos indicarán el importe máximo hasta el cual los créditos pueden ser incrementados. En estos casos, el Gobierno, a propuesta del Departamento competente en materia de presupuestos, acordará la forma de llevar a cabo dicha ampliación.

4.– En el caso contemplado en el apartado d) del párrafo 1 del presente artículo, los créditos de pago a transferir a dichos Entes podrán ser ampliados hasta el límite que establezca el respectivo presupuesto una vez esté aprobado.

Artículo 25.– Créditos ampliables por naturaleza.

No obstante lo establecido en el artículo anterior, tendrán la calificación de ampliables sin necesidad de figurar expresamente como tales en los estados de gastos de sus respectivos presupuestos:

a) Los créditos de pago destinados a las cotizaciones relativas al régimen de previsión social obligatoria del personal, en la cuantía resultante de las obligaciones que se reconozcan y liquiden según las disposiciones aplicables en cada caso como consecuencia de modificaciones en el régimen de contribución a la misma.

b) Las dotaciones que se detallan a continuación referidas exclusivamente a Organismos Autónomos Mercantiles:

– Las relativas a distribuciones de beneficios realizadas con arreglo a las normas vigentes para el Organismo.

– Las destinadas a dotar los fondos de previsión y amortización.

– Las destinadas a transferencias a los Entes Públicos de derecho privado y Sociedades Públicas en que participen.

c) Las dotaciones para subvenciones corrientes cuando esté previamente establecido que hayan de fijarse en función de los ingresos realizados.

Artículo 26.– Ampliación por recaudación.

Los créditos de pago que reciban la calificación de ampliables en función de la efectiva recaudación de los ingresos que les estén afectados, modularán su cuantía de acuerdo con las normas que reglamentariamente se establezcan.

3. ATALA
BESTE ORDAINKETA-KREDITU BATZUK

27. artikulua.– Kreditu aldakorrak.

1.– Kreditu aldakorrak autonomia-erkidegoko Administrazioaren aurrekontuko gastuen egoera-orrian jasotako ordainketa-kredituak dira, eta behin betiko zenbatekoa kreditu hori erabakitzeke kontuan hartu behar diren moduluen balioaren arabera finkatzen da.

2.– Kreditu aldakorrak berariaz agertuko dira izen horrekin gastuen egoera-orrian eta hasierako aurreikuspenei erantzuteko besteko zenbatekoa izango dute.

28. artikulua.– Kudeaketa-kredituak.

1.– Aurrekontu bakoitzeko gastuen egoera-orrietan, autonomia-erkidegoaren eskumenekoak ez diren zenbait arlotako proiektuak gauzatzeko beste ente publiko batzuetatik funtsak jasotzearen ondorioz sortutako obligazioei erantzuteko ordainketa-kredituak jasoko dira.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako egoerei erantzuteko diren ordainketa-kredituak, gorabehera hori adieraziz agertuko dira gastuen egoera-orrietan, eta arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera gauzatzeko dira.

29. artikulua.– Etendako kredituak.

Aurrekontu orokorraren zati diren aurrekontuetako gastuen egoera-orriaren barruan, aurrekontu orokorren legea onartzen denean sortu gabe dauden autonomia-erkidegoko sektore publikoko beste ente batzuei funtsak transferitzeko ordainketa-kredituak ez dira ez finkotzat ez behin betikotzat joko. Etenda geratuko dira, harik eta erakunde berria eratu eta haren aurrekontua lege honetako xedapenen arabera ontzat eman ondoren, erakunde horren benetako beharrak dagokion aurrekontuaren arabera zehazten diren arte.

4. ATALA
KONPROMISO-KREDITUAK

30. artikulua.– Definizioa.

1.– Konpromiso-kredituen egoera-orria ekitaldian konprometitu daitezkeen urte anitzeko gastu guztiek osatzen dute.

2.– Konpromiso-kredituen egoera-orriak, horietako bakoitzerako, zenbateko osoa eta gauzatzeko aurreikusitako ekitaldiak adieraziko ditu.

3.– Konpromiso-kredituen egoera-orria onartzeak ezarritako baldintzetan formalizatzeko baime-na emango du. Gastuaren beharrak hala eskatzen badu, ordainketa-kreditua kaltetzen ez bada eta konpromiso-kreditu osoa gainditzen ez bada, baimen-

SECCIÓN 3.^a
OTROS CRÉDITOS DE PAGO

Artículo 27.– Créditos variables.

1.– Tendrán el carácter de créditos variables aquellos créditos de pago incluidos en el estado de gastos del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma cuyo importe definitivo se fije en función del valor que alcancen los módulos que deban intervenir en su determinación.

2.– Los créditos variables figurarán expresamente con tal denominación en el estado de gastos y por un importe que responda a las previsiones inicialmente establecidas al respecto.

Artículo 28.– Créditos de gestión.

1.– Los estados de gastos de los presupuestos respectivos recogerán los créditos de pago necesarios para hacer frente a las obligaciones que se deriven de la percepción de fondos de otros Entes Públicos, para la ejecución de proyectos en materias cuya competencia no corresponda a la Comunidad Autónoma.

2.– Los créditos de pago que respondan a situaciones a que se refiere el párrafo anterior figurarán en los estados de gastos con indicación de tal circunstancia y su ejecución se sujetará a la normativa vigente al respecto.

Artículo 29.– Créditos en suspenso.

Dentro del estado de gastos de cualquiera de los presupuestos integrantes de los Generales, los créditos de pago destinados a transferir fondos a otros entes integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma que no se hayan constituido a la fecha de aprobación de la Ley de Presupuestos Generales no se entenderán fijos ni definitivos, y quedarán en suspenso, hasta que puedan concretarse las necesidades reales del nuevo ente en función de su respectivo presupuesto una vez aquél haya sido constituido y éste sea aprobado de acuerdo con las disposiciones contenidas en la presente Ley.

SECCIÓN 4.^a
LOS CRÉDITOS DE COMPROMISO

Artículo 30.– Definición.

1.– El estado de créditos de compromiso está constituido por el conjunto de gastos de carácter plurianual que pueden comprometerse durante el ejercicio.

2.– El estado de créditos de compromiso indicará para cada uno de ellos su cuantía total y ejercicios previstos para su ejecución.

3.– La aprobación del estado de créditos de compromiso autorizará a su formalización en las condiciones establecidas. El Gobierno podrá proceder a la modificación y distribución por anualidades de los créditos de compromiso autorizados cuando la necesi-

dutako konpromiso-kredituak aldatu eta urtekotan bana ditzake Jaurlaritzak.

4.– Aurrekontuetan ezin izango da jaso ekitaldian bertan gauzatzen hasiko ez den konpromiso-krediturik, eta horretarako zuzkidura egon beharko da dagozkion ordainketa-kredituetan.

31. artikulua.– Autonomia-erkidegoko Administrazio, administrazio-organismo autonomoak eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.

1.– Jaurlaritzak, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren proposamenez, konpromiso-kredituen egoera-orria zabal dezake, kreditu berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handituz, eta handitu ere, autonomia-erkidegoko Administrazioaren, administrazio-organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuko ordainketa-kredituen zenbateko osoaren % 5era arte handitu ahal izango ditu. Muga hori ez da aplikatuko kredituak Administrazioaren ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ohiko erosketarako badira.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako prozedurari jarraituz eta adierazitako muga bete beharrik gabe, gauzatu ahal izateko hasierako aurrekontu-ekitaldia baino gehiago behar dituzten konpromisoak hartu ahal izango dira, konpromiso-krediturik esleituta eduki ez arren, baldin eta behar bezala justifikatutako arrazoientzat, aurreikusitako helburua ezin bada hasierako ekitaldi horretan burutu. Kreditu-soberakinak berriz erabili ahal izango dira aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak erabakitako moduan.

3.– 82. artikuluko 2. paragrafoaren a) idatzi-zatian aipatzen diren ekarpenen edo ekarpen-konpromiso irmoen kasuan, horien eragina hurrengo ekitaldietara hedatzen bada, Jaurlaritzak, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak proposatuta, dagozkion konpromiso-kredituak sortzeko baimena eman dezake.

32. artikulua.– Baimenik gabeko konpromisoak.

1.– Hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastuetarako konpromisoa hartzeko ez da onarpenik ez baimenik beharko, gastu horiek indarrean dauden xedapenekin bat etorritik egindako zorpetetik datozen finantza-kargei eta amortizazioei badagozkie.

2.– Gainera, 31. artikuluan aipatutako erakundeei dagozkien, ondasun higiezinak alokatzeari dagozkion konpromisoetarako ere ez da onarpenik ez baimenik beharko.

dad del gasto así lo demande y siempre que el crédito de pago no se vea afectado ni se sobrepase el crédito de compromiso entendido en su conjunto.

4.– Los presupuestos no podrán recoger créditos de compromiso cuya ejecución no comience en el propio ejercicio, a cuyo efecto deberán estar dotados los correspondientes créditos de pago.

Artículo 31.– Administración de la Comunidad Autónoma, Organismos Autónomos Administrativos y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma.

1.– El Gobierno, a propuesta del departamento competente en materia de presupuestos, podrá incrementar el estado de créditos de compromiso, aprobando nuevos créditos o aumentando el importe de los autorizados hasta un 5% del importe total de los créditos de pago del presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma, respectivamente. El citado límite no se aplicará cuando se trate de créditos correspondientes a adquisiciones habituales de bienes o servicios necesarios para el normal funcionamiento de la Administración o complementarios del mismo.

2.– Siguiendo el procedimiento previsto en el párrafo anterior y sin sujeción al límite señalado, podrán adquirirse compromisos que excedan en su ejecución el ejercicio presupuestario en que se inicien y para los que no se hubiesen consignado créditos de compromiso en el supuesto de que por retrasos debidamente justificados no se pudiera alcanzar el objetivo previsto durante aquel ejercicio presupuestario. Los créditos excedentarios serán susceptibles de reutilización en la forma que determine el departamento competente en materia de presupuestos.

3.– En el supuesto de aportaciones o compromisos firmes de aportación a los que se refiere el apartado a) del párrafo 2 del artículo 82 que extendieran sus efectos a ejercicios posteriores, el Gobierno, a propuesta del departamento competente en materia de presupuestos, podrá autorizar la creación de los correspondientes créditos de compromiso.

Artículo 32.– Compromisos sin autorización.

1.– No se requerirá aprobación ni autorización para la adquisición de compromisos para gastos que hayan de extenderse a ejercicios posteriores cuando correspondan a cargas financieras y amortizaciones derivadas del endeudamiento realizado en conformidad con las disposiciones vigentes.

2.– Además, en el caso de las entidades a que se refiere el artículo 31, tampoco se requerirá aprobación ni autorización respecto a compromisos relativos al arrendamiento de bienes inmuebles.

33. artikulua.– Zabaltzea.

Konpromiso-kredituen egoera-orrian jasotako partiden artean, partidetakoz batzuen ordainketa-kreditua zabalgarritzat jo bada, dagokion aurrekontuan adierazi egin beharko da, hala badagokio, kreditua benetan zabaltzen denean, nola aldatuko duen horrek dagokion konpromisoa.

III. TITULUA
AURREKONTUEN EGITURA
I. KAPITULUA
ARAU OROKORRAK

34. artikulua.– Egitura-arauak.

Aurrekontu orokorra osatzen duten aurrekontu guztietako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak titulu honetan jasotako egitura-arauekin eta horiek garatzeko gainontzeko xedapenekin bat etorri prestatuko dira.

35. artikulua.– Eskumena.

1.– Aurrekontu-gaietan eskumenak dituen sailari dagokio aurrekontuen egitura lege honetan xedatzen denaren arabera zehaztea. Horretarako, aurrekontu horietako bakoitzaren ezaugarri bereziak kontuan izan beharko dira, baita autonomia-erkidegoko sektore publikoa osatzen duten sailek eta enteek egindako proposamenak eta emandako aholkuak ere.

2.– Sail bakoitzari dagokio bere agintepean dau den autonomia-erkidegoko organismo autonomo eta sektore publikoko partzuergoen aurrekontuen egitura garatzea.

3.– Autonomia-erkidegoko sozietate publiko bakoitzak edo zuzenbide pribatuko ente publiko bakoitzak edo autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazio bakoitzak, bere berezitasunei egokitzuz, bere aurrekontuen oinarritzko egitura –aurrekontu-gaietan aginpidea duen sailak ezarria– garatu ahal izango du.

36. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa bateratzea.

Foru-aldundiek eta toki-erakundeek, bai eta horien menpeko entitate eta organismoek ere, autonomia-erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanak arautzen dituen azaroaren 25eko 27/1983 Legean adierazitako moduan, lege honetan jasotakoekin bateragarriak diren irizpideak erabiliko dituzte beren aurrekontuen egituraketan, euskal sektore publikoa osatzen duten aurrekontu guztiak batean bildu ahal izateko.

Artículo 33.– Ampliación.

Si el estado de créditos de compromiso contuviese partidas de las que el correspondiente crédito de pago tuviese la calificación de ampliable, el presupuesto respectivo deberá recoger los términos en que, en su caso, la efectiva ampliación del crédito de pago modifique la cuantía del correspondiente compromiso.

TÍTULO III
LA ESTRUCTURA DE LOS PRESUPUESTOS
CAPÍTULO I
NORMAS GENERALES

Artículo 34.– Normas de estructura.

Los estados de ingresos y de gastos integrantes de cada uno de los presupuestos que formen parte de los Generales serán elaborados de acuerdo con las normas de estructura contenidas en el presente Título y demás disposiciones que las desarrollen.

Artículo 35.– Competencia.

1.– Corresponde al Departamento competente en materia de presupuestos la determinación de la estructura de los presupuestos de acuerdo con lo dispuesto en la presente Ley, debiendo para ello tener en cuenta las características específicas de cada uno de ellos así como las propuestas y recomendaciones que al efecto hagan los Departamentos y los entes que componen el sector público de la Comunidad Autónoma.

2.– Corresponde a cada Departamento el desarrollo de la estructura presupuestaria de los Organismos Autónomos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de él dependientes.

3.– Cada Sociedad Pública o Ente Público de derecho privado o Fundación del sector público de la Comunidad Autónoma podrá desarrollar con arreglo a sus peculiaridades la estructura básica de sus presupuestos establecida por el Departamento competente en materia de presupuestos.

Artículo 36.– Consolidación del sector público vasco.

Las Diputaciones Forales y Entidades Locales, así como los organismos y entidades de ellos dependientes, aplicarán, en la forma señalada en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, criterios de estructura presupuestaria homogéneos a los contenidos en la presente Ley, con el fin de posibilitar la consolidación de todos los presupuestos integrantes del sector público vasco.

II. KAPITULUA
KONTABILITATE-EGITURA
1. ATALA

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA,
ADMINISTRAZIO-ORGANISMO AUTONOMOAK
ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOAK

37. artikulua.– Izaera ekonomikoa.

Atal honetan aipatutako entitateen aurrekontuetan sartutako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak aurrekontuen ekonomia-izaera oinarri hartuta zehaztutako kontabilitate-egituraren arabera aurkeztuko dira.

38. artikulua.– Kreditu-motak.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako gastuen egoera-orrien kontabilitate-egituraren, gastu arruntetarako eta kapital-eragiketarako kredituak bereizi egingo dira.

2.– Gastu arruntetarako kredituetan, honako hauek bereiziko dira:

- a) Langile-gastuak.
- b) Jarduera-gastuak.
- c) Finantza-gastuak.

d) Gastu arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak.

3.– Kapital-eragiketarako kredituetan, inbertsioetarako kredituak eta finantza-eragiketarako kredituak ere sartuko dira, honako xehetasun hauekin:

- a) Inbertsio errealak.
- b) Inbertsio errealerako edo finantza-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak.

- c) Finantza-aktiboen gehikuntza.
- d) Finantza-pasiboen murrizketa.

4.– Lege honen ondorioetarako, transferentziatzat hartuko da funtsak entregatzea, onuradunengandik kontrapartidarik jaso gabe, onuradunak autonomia-erkidegoko sektore publikoko enteak direnean; diru-laguntzak ere transferentziatzat hartuko dira, funtsen onuradun beste edozein entitate edo pertsona denean.

CAPÍTULO II
ESTRUCTURA CONTABLE
SECCIÓN 1.ª

ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA, ORGANISMOS AUTÓNOMOS
ADMINISTRATIVOS Y CONSORCIOS DEL SECTOR
PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE
EUSKADI

Artículo 37.– Naturaleza económica.

Los estados de ingresos y de gastos contenidos en los presupuestos de las entidades a que se refiere la presente sección se presentarán de acuerdo con una estructura contable determinada en base a la naturaleza económica de los mismos.

Artículo 38.– Tipos de créditos.

1.– La estructura contable de los estados de gastos a que se refiere el artículo anterior distinguirá entre créditos para gastos corrientes y para operaciones de capital.

2.– Los créditos para gastos corrientes distinguirán entre:

- a) Gastos de personal.
- b) Gastos de funcionamiento.
- c) Gastos financieros.

d) Transferencias y subvenciones para gastos corrientes.

3.– Los créditos para operaciones de capital incluirán los créditos para inversiones y créditos para operaciones financieras con el siguiente detalle:

- a) Inversiones reales.
- b) Transferencias y subvenciones con destino a inversiones reales o con destino a operaciones financieras.
- c) Aumento de activos financieros.
- d) Disminución de pasivos financieros.

4.– A los efectos de la presente Ley se entenderá por transferencia la entrega de fondos, sin contrapartida de los beneficiarios, cuando éstos sean entes integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma, y por subvenciones cuando los beneficiarios de los fondos sean cualesquiera otras entidades o personas.

2. ATALA

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO MERKATARITZA-ORGANISMO AUTONOMOAK, ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAK, SOZIESTATE PUBLIKOAK ETA SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIOAK

39. artikulua.– Zehaztapena.

1.– Artikulu honetan aipatutako entitateen ustiapen- eta kapital-aurrekontuen egitura aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak zehaztuko du.

2.– Hala ere, autonomia-erkidegoko sozietate publikoek eta sektore publikoko fundazioek beren kontabilitatea Kontabilitate Plan Orokorrera egokituko dute, beharrezkoa bada aldaketak eginda.

III. KAPITULUA

PROGRAMAKAKO SAILKAPENA

40. artikulua.– Edukia.

1.– Autonomia-erkidegoko, administrazio-organismo autonomoetako eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontua osatzen duten ordainketa-kredituak programaka sailkatuta aurkeztuko dira.

2.– Programa bakoitzak, berriz, lortu nahi dituen helburuei, ekitaldian beharko diren giza eta finantzabaliabideei, jardunei eta horien arduradunei buruzko argibideak bilduko ditu.

3.– Programa bakoitzaren helburuak, zenbakiz neurtzeko eta jarraipena egin ahal izateko moduan zehaztuko dira. Helburuak zenbakiz neurtu ezinekoak direnean, horiek zenbateraino bete diren kontrolatzeko egokien diren zenbaki-indizeak edo adierazleak aukeratu dira.

4.– Programa bakoitzean, hala badagokio, hori buruzetik ustez sortuko diren eta dagokion aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orrian jaso diren diru-sarrerak sartuko dira.

41. artikulua.– Konpromiso-kredituak.

Autonomia-erkidegoko, administrazio-organismo autonomoetako eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuko konpromiso-kredituak dagozkien ordainketa-kredituei erreferentzia eginda aurkeztuko dira ordainketa-kredituok barne hartzen dituzten programetan, eta lege honetako 37. eta 38. artikuluetan aipatzen den kontabilitate-egituraren arabera sailkatuko dira.

SECCIÓN 2.^a

ORGANISMOS AUTÓNOMOS MERCANTILES, ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO, SOCIEDADES PÚBLICAS Y FUNDACIONES DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA

Artículo 39.– Determinación.

1.– La estructura de los Presupuestos de Explotación y de Capital de las entidades a que se refiere la presente sección se determinará por el Departamento competente en materia de presupuestos.

2.– No obstante lo anterior, las Sociedades Públicas y las Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma adecuarán su contabilidad al Plan General de Contabilidad con las adaptaciones que, en su caso, resulten de aplicación.

CAPÍTULO III

CLASIFICACIÓN POR PROGRAMAS

Artículo 40.– Contenido.

1.– Los créditos de pago integrantes del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos Administrativos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma se presentarán clasificados por programas.

2.– Cada programa recogerá la información relativa a los objetivos por él perseguidos, medios humanos y financieros necesarios en el ejercicio, actividades a llevar a cabo y responsables de su ejecución.

3.– El Gobierno, a propuesta del departamento competente en materia de presupuestos y, en su caso, de los órganos responsables de las distintas entidades a que se refiere el presente Capítulo, podrá incrementar el estado de compromisos futuros, aprobando nuevos compromisos o aumentando el importe de los autorizados, hasta un 15% del importe global de los inicialmente autorizados para el conjunto de entidades. De tales autorizaciones se dará cuenta trimestralmente a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco.

4.– El departamento competente en materia de presupuestos, cuando las necesidades de seguimiento y gestión presupuestaria lo requieran, podrá proceder a realizar las adaptaciones técnicas que resulten oportunas para incorporar las variaciones en los presupuestos de explotación y capital que, de conformidad con el párrafo 1 anterior, no supongan una modificación presupuestaria.

Artículo 98.– Supuestos específicos.

1.– Los ingresos y la financiación obtenidos por parte de las entidades a que se refiere el presente Capítulo que, no derivados del desarrollo de sus propias actividades, superen los previstos en los presupuestos de explotación y de capital respectivamente en cada entidad, podrán ser aplicados a la realización de

barruan ageri ez arren, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren baimenaz, diru-sarrera horiek hasieran aurreikusitakoekin alderatuta gehienez ere % 10ekoak badira. Diru-sarrerak hasieran aurreikusitakoak baino % 30 gehiago izatera iritsi ez badira, Jaurlaritzaren ardura izango da baimena ematea. Bestelakoetan, Parlamentuak eman beharko du baimena, Jaurlaritzak, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak proposatuta, horretarako aurkeztutako lege-proiektua onartuz.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu orokorretan zuzkidurarik ez duen gastu edo inbertsionen bat egin behar izanez gero kapitulu honek aipatzen dituen erakundeen urteroko helburuetan aipatzen ez diren jardueretan, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak erabaki dezake erakunde horien aurrekontuak gehitzea, betiere gehikuntzak dagokion entearen aurrekontuen % 10 gainditzen ez badu, sail horrek aipatutakoaren arabera kuantifikaturik eta sailak berak ezarritako prozedura betez. Aurrekontuak lehen aipatutako ehuneko horretatik gora gehitzeko baimena Jaurlaritzari dagokio, baldin eta ez badu hasierako aurrekontuen % 30 gainditzen, edo Legebiltzarrari, ehuneko hori gainditzen badu. Sail horrek proposatuta Jaurlaritzak aurkeztuko duen lege-proiektuari buruzko iritzia eman beharko du organo horrek.

99. artikulua.– Funtsen soberakinak.

1.– Jaurlaritzak, ekitaldirako jarritako helburuak zenbateraino gauzatu diren ikusita, hasiera batean autonomia-erkidegoko merkataritza-organismo autonomoei, zuzenbide pribatuko ente publikoei, sozietate publikoei eta sektore publikoko fundazioei emateko pentsatuta zegoen dirua soberakintzat jo ahal izango du, egoki irizten dion neurrian eta aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak proposatuta. Soberakin horiek, beren izaeraren arabera, eragiketa arrunt nahiz kapital-eragiketetarako erabili ahal izango dira, lege honetan kredituak transferitzeko ezartzen den araubidea betez.

2.– Autonomia-erkidegoko merkataritza-organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek, sozietate publikoek eta sektore publikoko fundazioek izandako soberakinak, finantzatzekoak ziren helburuak bete ez direlako edo gauzatzeko orduan atzerapenak izan direlako sortu badira, kontuan hartuko dira hurrengo ekitaldirako aurrekontuen finantziazioa zehazteko.

cualesquiera operaciones aun cuando éstas no figuren entre los objetivos anuales de la entidad de que se trate con autorización del Departamento competente en materia de presupuestos cuando tales ingresos no superen el 10% de los inicialmente previstos. La autorización corresponderá al Gobierno si los ingresos no superan el 30% de los inicialmente previstos. En otro caso, corresponderá al Parlamento, quien deberá pronunciarse sobre el correspondiente proyecto de ley que, a tal efecto presente el Gobierno, a propuesta del Departamento competente en materia de presupuestos.

2.– En el caso de tener que realizarse algún gasto o inversión para el que no exista dotación en los presupuestos generales del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se refiera a actividades no comprendidas en los objetivos anuales de las entidades a que se refiere el presente Capítulo, podrá acordarse un aumento de los presupuestos de éstas por parte del Departamento competente en materia de presupuestos, siempre que no sobrepase el 10% del conjunto de los presupuestos del ente respectivo, computado de conformidad con lo establecido por el Departamento citado y cumpliendo, asimismo, el procedimiento determinado por éste. La autorización del aumento de los presupuestos por encima del límite porcentual mencionado anteriormente, corresponderá al Gobierno si no supera el 30% del conjunto de los mismos, o al Parlamento si supera este último porcentaje. Este órgano deberá pronunciarse sobre el correspondiente proyecto de ley que presente a tales efectos el Gobierno a propuesta del citado Departamento.

Artículo 99.– Excedentes de fondos.

1.– El Gobierno, a la vista del grado de ejecución de los objetivos establecidos para el ejercicio, podrá declarar como excedentarios, en la cuantía que estime conveniente y a propuesta del Departamento competente en materia de presupuestos, los fondos inicialmente destinados a ser transferidos a los Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma. Dichos excedentes podrán ser aplicados, según su naturaleza, de corrientes o de capital, con cumplimiento de las normas reguladoras del régimen de transferencias de crédito contenido en la presente Ley.

2.– Los excedentes de fondos que registren los Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma como consecuencia de incumplimiento o retrasos en la ejecución de los objetivos a cuya financiación iban destinados, serán tomados en cuenta para la determinación de la financiación de sus presupuestos correspondientes al próximo ejercicio.

IX. KAPITULUA
UNEAN UNEKO NEURRIAK

100. artikulua.– Aparteko inbertsiorako programa.

1.– Aurreko artikuluan esandako arrazoiengatik, autonomia-erkidegoaren aurrekontuko gastuen egoera-orriak aparteko inbertsiorako programa bat izan ahal izango du barne, Jaurlaritzak ekonomia-egoeraren arabera egin ditzakeen kapital-eragiketei lotutako programak, behar bezala zehaztuak, jasoko dituen.

2.– Programa horren zenbatekoa ez da autonomia-erkidegoko Administrazioaren aurrekontuan sartutako kapital-eragiketa guztien ordainketa-kredituen % 10 baino txikiagoa izango, programari berari dagozkionak bazter utzirik.

3.– Programak, gainera, hartzen dituen proiektuak finantzatzeko erabiliko diren diru-baliabideak zehaztuko ditu.

4.– Aparteko inbertsiorako programan sartutako kredituak ezin izango dira beste programa batzuetara transferitu.

5.– Programa hori edo bertan sartutako proiektuak gauzatzeko, Jaurlaritzaren baimena beharko da, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak proposatuta eta Ekonomia Batzordeak aldez aurretik onartuta. Gainera, Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari eman beharko zaio horren berri hiru hilabeterik behin.

101. artikulua.– Proiektuak ez egitea.

1.– Uneko ekonomia- eta gizarte-egoera kontuan hartuta, Jaurlaritzak erabaki dezake, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak proposatuta, kapital-eragiketei lotutako programak ez egitea, gehienez ere aurrekontu orokorrak osatzen dituzten aurrekontueta-ko gastu-egoeretan eragiketa horietarako ageri diren ordainketa-kredituen % 10eko zenbatekora arte.

2.– Erabakiak programa bereziak osatzen dituzten kapital-eragiketa guztiak egin gabe uztea ekarriko bala, lege-bidezko baimena beharko litzateke.

3.– Aurreko bi paragrafoen arabera erabilgarri geratzen diren funtsak ekitaldiaren barnean erabili ahal izateko, lege-bidezko baimena beharko da; nolahi ere, ez da baimen hori beharko funts horiek, aurreko 1. paragrafoan aurreikusitako kasuan, eragindako kredituak zertarako baimendu ziren, eta horrexetarako erabili behar badira.

CAPÍTULO IX
MEDIDAS COYUNTURALES

Artículo 100.– Programa de inversión extraordinaria.

1.– En base a las mismas razones citadas en el artículo precedente, el estado de gastos del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma podrá contener un programa de inversión extraordinaria en el que se recogerán los proyectos relativos a operaciones de capital debidamente especificados, que el Gobierno pueda llevar a cabo en función de la situación económica.

2.– El importe de este programa no será inferior al 10% de los créditos de pago del conjunto de operaciones de capital incluidas en el Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, excluidos los correspondientes al presente programa.

3.– El programa indicará los recursos con los que, en su caso, se financiarán los proyectos en él contenidos.

4.– Los créditos incluidos en el programa de inversión extraordinaria no serán transferibles a otros programas.

5.– La ejecución del citado programa o de los proyectos en él contenidos requerirá la autorización del Gobierno a propuesta del Departamento competente en materia de presupuestos, y de la misma se dará cuenta trimestralmente a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento.

Artículo 101.– No realización de proyectos.

1.– En función de la situación que presente la coyuntura económico-social, el Gobierno, a propuesta del Departamento competente en materia de presupuestos, podrá acordar la no realización de proyectos relativos a operaciones de capital, hasta un importe máximo del 10% de los créditos de pago que para tales operaciones figuren en los estados de gastos de los distintos presupuestos integrantes de los Generales.

2.– Si el acuerdo implicase la no realización de todas las operaciones de capital integrantes de programas específicos se requerirá autorización por ley.

3.– Los fondos que quedasen disponibles en función de los dos párrafos anteriores requerirán, para su utilización dentro del ejercicio, de autorización por ley salvo que dicha utilización se realizase, en el supuesto contemplado en el párrafo 1 anterior, para idénticos fines para los que los créditos afectados hubiesen sido inicialmente autorizados

VI. TITULUA
HITZARMEN-ARAUBIDEA**102. artikulua.**– Hitzarmenak Estatuarekin.

Autonomia-erkidegoak Estatuarekin egindako hitzarmenen ondorioz funts gehigarriak lortzen bada aurrekontu orokorrak osatzen dituzten gastuegoeretan aurreikusitakoak osatzeko, aurrekontugaietan eskumena duen sailak kasuan kasuko programetan edo berariaz sortzen direnetan erantsiko ditugozkion ordainketa-kredituak.

103. artikulua.– Kudeaketako diru-sarrera eta kredituak.

Aurreko artikuluan aipatutako funts gehigarriak autonomia-erkidegoaren eskumen ez diren proiektuetarako badira, baina proiektu horiek gauzatzeko zeregina autonomia-erkidegoari eman bazaio eskuordetzan, kredituak aurreko artikuluan aipatu bezala aurrekontuetan eransteko, bai kredituok eta bai programak, hala badagokio, lege honen 28. eta 45. artikuluetan jasotako moduan zehaztu beharko dira eta, era berean, diru-sarrerak 17. artikulua dioenaren arabera.

104. artikulua.– Hitzarmenak autonomia-erkidegoekin, lurralde historikoekin eta toki-erakundeekin.

Euskal Autonomia Erkidegoak funts gehigarriak eskuratzen baditu aurrekontu orokorra osatzen duten aurrekontuetakoren batean, beste erkidego batzuekin, lurralde historikoekin eta toki-erakundeekin bere egitekoak hobeki betetzeko egindako hitzarmenen ondorioz, lege honen 102. eta 103. artikuluetan esandakoa egingo da.

105. artikulua.– Hitzarmenen finantzaketa.

1.– Lege honen 102. artikuluan adierazitako hitzarmenen ondorioz autonomia-erkidegoko Administrazioak edo sektore publikoa osatzen duten enteei jarri behar dituzten finantza-baliabide guztiak edo horietako batzuk Estatuak edo beste erakunde publiko batzuek egindako transferentzia eta esleipenetatik eskuratutakoak izan daitezke eta, nolana ere, behar bezala zehaztuta agertu beharko dute eragindako kredituei dagozkien programetan.

2.– Behin hitzarmena egitea onartu, eta sinatutakoan, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak behar diren baliabideen transferentzia egingo du, kasuan kasuko hitzarmenean ezarritako moduan.

106. artikulua.– Konpromiso-kredituak.

1.– Aurreko 102. eta 104. artikuluetan aipatutako hitzarmenek hurrengo ekitaldietarako konpromisoak hartzea badakar eta konpromiso horiek finantzatzeko

TÍTULO VI
EL RÉGIMEN DE CONVENIOS**Artículo 102.**– Convenios con el Estado.

Si como consecuencia de los convenios que celebre la Comunidad Autónoma con el Estado se recibiesen fondos adicionales a los inicialmente previstos en cualquiera de los estados de gastos integrantes de los Presupuestos Generales, los correspondientes créditos de pago se incorporarán por el departamento competente en materia de presupuestos en los programas y estados respectivos o en los nuevos que al efecto se creen.

Artículo 103.– Ingresos y créditos de gestión.

Si los fondos adicionales a que se refiere el artículo anterior lo fuesen con destino a proyectos sobre los que no tenga competencia la Comunidad Autónoma pero cuya ejecución le haya sido delegada, la incorporación a que se refiere el citado artículo requerirá la especificación de los correspondientes créditos y, en su caso, programas, en los términos establecidos en los artículos 28 y 45, y, del mismo modo, se especificarán los ingresos en los términos establecidos en el artículo 17, todos ellos de la presente Ley.

Artículo 104.– Convenios con otras Comunidades, Territorios Históricos y Entes Locales.

Si como consecuencia de los convenios que celebre la Comunidad Autónoma de Euskadi con otras Comunidades, con los Territorios Históricos y Entes Locales, para el mejor desenvolvimiento de sus competencias se recibiesen fondos adicionales a los inicialmente previstos en cualquiera de los presupuestos integrantes de los Generales se procederá del mismo modo al contemplado en los artículos 102 y 103 de la presente Ley.

Artículo 105.– Financiación de los convenios.

1.– Los recursos financieros que como consecuencia de los convenios a que se refiere el artículo 102 deba aportar la Administración de la Comunidad Autónoma o cualquiera de las entidades integrantes de su sector público, podrán provenir total o parcialmente de las transferencias y asignaciones del Estado u otros entes públicos y, en cualquier caso, figurarán con la debida especificación en los programas en que figuren los créditos afectados.

2.– Una vez aprobada la celebración del convenio y firmado éste, el Departamento competente en materia de presupuestos procederá a la transferencia de los medios necesarios en los términos que establezca cada convenio específico.

Artículo 106.– Créditos de compromiso.

1.– Si de los convenios a que se refieren los artículos 102 y 104 anteriores se derivase la adquisición de compromisos para futuros ejercicios cuya financiación

beharrezkoa bada dagokion entearen aurrekontuetan sartutako ordainketa-kreditu guztien % 5 baino gehiago, hitzarmen hori egiteko, lege-bidezko baimena beharko da.

2.– Behin aurreko paragrafo horretan aipatzen den baimena lortutakoan, eta gerorako konpromisoak hartzeko lege-bidezko baimenik behar ez den kasuetan, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak kasuan kasuko programa eta egoera-orrietan sartuko ditu dagozkien konpromiso-kredituak.

107. artikulua.– Ekonomia Ituna.

Lege honen 102. artikuluan aipatutako Estaturerikiko hitzarmenak egitea Ekonomia Itunaren laugarren xedapen gehigarriak dienez bestekotzat jo behar da. Hala ere, xedapen horren arabera hitzarmenak egin izanak autonomia-erkidegoari, aurreko artikuluetan esandako moduan, funts gehigarriak, gerorako konpromisoak edo finantza-beharrak badakarzkio, artikuluhoriek diotena egingo da.

108. artikulua.– Araudia.

Lege honen 104. artikuluan aipatutako hitzarmenak Autonomia Estatutuak eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeak agintzen dutenaren arabera egingo dira.

VII. TITULUA
AURREKONTUAK GAUZATZEA
I. KAPITULUA
DIRU-SARRERAK GAUZATZEA

109. artikulua.– Kobratzeko bideak.

Aurrekontuko diru-sarrerak autonomia-erkidegoko Administrazioaren, bere organismo autonomoen edo sektore publikoko partzuergoen aldeko tributu-zorraz eta tributuenak ez diren zorraz diren heinean, erregelamendu bidez zehaztuko diren baliabideak erabiliz gauzatuko dira.

110. artikulua.– Xedetik jaregitea.

Dagokien aurrekontua itxi ondoren egindako diru-sarrerak, zegokiekeen berariazko xedetik jareginda geratuko dira, baina aukera egongo da berriz ontzat eman eta indarrean den ekitaldiko aurrekontuetan berriz xedea jarri ahal izateko.

supusiese un importe superior al 5% del conjunto de créditos de pago incluidos en el presupuesto del Ente de que se trate, la adquisición del citado compromiso requerirá autorización por ley.

2.– Una vez obtenida la autorización a que se refiere el apartado anterior, así como en los casos en que la adquisición de futuros compromisos no requiriese de autorización por ley, el Departamento competente en materia de presupuestos procederá a la incorporación a los programas y estados respectivos de los correspondientes créditos de compromiso.

Artículo 107.– Concierto Económico.

La celebración de convenios con el Estado a que se refiere el artículo 102 de la presente Ley deberá entenderse con independencia de lo establecido en la Disposición Adicional Cuarta del Concierto Económico. Sin embargo, si como consecuencia de la celebración de convenios en virtud de esta última disposición se derivase para la Comunidad Autónoma la recepción de fondos adicionales, compromisos futuros o necesidades financieras en los términos recogidos en los artículos anteriores se estará a lo que en ellos se dispone.

Artículo 108.– Normativa.

La celebración de los convenios a que se refiere el artículo 104 de la presente Ley se ajustará a lo dispuesto en el Estatuto de Autonomía y en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

TÍTULO VII
LA EJECUCIÓN DE LOS PRESUPUESTOS
CAPÍTULO I
EJECUCIÓN DEL INGRESO

Artículo 109.– Medios de cobro.

Los ingresos presupuestarios, en cuanto constituyan deudas tributarias y no tributarias en favor de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus Organismos Autónomos o de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma, se harán efectivos utilizando los medios que se especifiquen por vía reglamentaria.

Artículo 110.– Desafectación del destino.

Los ingresos que se realicen una vez cerrado el respectivo presupuesto quedarán desafectados del destino específico que les hubiera correspondido, sin perjuicio de su reconocimiento y nueva afectación con cargo al presupuesto del ejercicio en curso.

II. KAPITULUA
GASTUA GAUZATZEA
1. ATALA
ARAU OROKORRAK

111. artikulua.– Gauzatzearen faseak.

1.– Gastu-aurrekontua gauzatzea arautzeak autonomia-erkidegoko Administrazioaren, organismo autonomoen eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuan ageri diren kredituak zuzen erabiltzeko eragiketa guztiei eragiten die.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako eragiketak honako hauek dira:

- a) Gastua egiteko baimena.
- b) Gastuaren xedapena.
- c) Ordainketa egin beharra.
- d) Ordaintzeko agindua.

3.– Jakineko edo gutxi gorabeherako zenbatekoko gastua ordainketa-kreditu jakin baten kontura –diru guztia edo kopuru-zati bat horretarako bereiziz– egiteko erabakiari esaten zaio «Gastua egiteko baimena».

4.– Dagozkion lege-izapideak bete ondoren –eta behar diren ordaintzeko kredituaren zenbatekoa eta baldintzak erabat zehaztuta–, lan jakin batzuk egiteko eta ondasun edo zerbitzuak jartzeko eta betetzeko formalizazioari esaten zaio «Gastuaren xedapena».

5.– «Xedapenaren» gai den zerbitzua jaso izanaren edo horri buruz erabakitako edo jarritako baldintzak behar bezala egiaztatu izanaren ondorioz eskatzeko modukoak diren kredituak kontuetan jasotzeari esaten zaio «Ordainketa egin beharra». Diru-laguntzen gastuei dagokienez, diru-laguntzak emateko uneak edo kasuan kasuko diru-laguntzek baldintzatuko dute ordainketa egin beharra. Ordainketa egin behararen eskakizuna diru-laguntzak emateko kasu bakoitzean ezarriko diren arauen arabera izango da. Ildo horretan, bete behar diren ordainketak gauzatze egokienak diren ordainketa- edo konpromiso-kredituak jarraibide gisa joko dira ezarri behar zaien aurrekontu-araubidea aukeratzeko. Halaber, hautatzen den aurrekontu-araubideak, batetik, lagundu behar du diru-laguntzen baldintzak bene-benetan bete daitezen, eta, bestetik, aurrekontu-gaietan aginpidea duen sailak, lege honen 58.2 artikulua aplikatuz, aurrekontuak egiteko eman dituen irizpide teknikoak jarraitu behar die.

6.– Arduradunak, hartutako obligazio bat dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontura ordaintzeko agindua emateari esaten zaio «agindutako ordainketa».

CAPÍTULO II
EJECUCIÓN DEL GASTO
SECCIÓN 1.ª
NORMAS GENERALES

Artículo 111.– Fases de ejecución.

1.– La regulación de la ejecución presupuestaria en su vertiente de gastos afecta a todas las operaciones dirigidas a la correcta utilización de los créditos que figuran en el Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, en el de los Organismos Autónomos y en el de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma.

2.– Las operaciones a las que se refiere el párrafo anterior son las siguientes:

- a) Autorización del gasto.
- b) Disposición del gasto.
- c) Contracción de la obligación.
- d) Ordenación del pago.

3.– La «autorización» del gasto es el acto por el cual se acuerda su realización por importe cierto o aproximado con cargo a un determinado crédito de pago reservando a tal fin la totalidad o una parte disponible del mismo.

4.– La «disposición» es el acto por el cual se formaliza, una vez efectuados los trámites legales que sean procedentes, la realización concreta de obras y la prestación o suministro de bienes y servicios con la consiguiente reserva del crédito de pago por importe y condiciones exactamente determinadas.

5.– Se entiende por «contracción de la obligación» la operación de registrar en cuentas los créditos exigibles por motivo de que haya sido acreditada satisfactoriamente la prestación objeto de la «disposición» o el cumplimiento de las condiciones acordadas o establecidas al respecto. En los gastos subvencionales, la contracción de la obligación vendrá determinada por el momento de la concesión de las subvenciones o ayudas de que se trate, y su exigibilidad estará en función de lo que determinen las correspondientes normas de concesión de subvenciones que se establezcan en cada caso, debiéndose aplicar a tales gastos un régimen presupuestario acorde con la clase de créditos, de pago o de compromiso, que resulte más adecuado con los pagos a los que hacer frente y/o el cumplimiento real de las condiciones de la subvención o ayuda, y en virtud, en todo caso, de las directrices técnicas de confección presupuestaria que, en aplicación del artículo 58.2 de la presente Ley, emita el Departamento competente en materia de presupuestos.

6.– Se entiende por «pago ordenado» la operación por la que el responsable expide, en relación con una obligación contraída, el mandamiento de pago contra la Tesorería General del País Vasco.

112. artikulua.– Printzipioak.

Aurrekontuetako gastuen arloa arautzeko printzipioak hauek dira:

a) Etengabeko administrazio-kontrolaren printzipioa. Hori dela eta, prozedurako urrats bakoitza aurrekoa behar bezala egin dela egiaztatu ondoren egingo da.

b) Prozedurako urrats guztiak, justifikatu beharreko ordainketak barne, agiri bidez egiaztatzea eskatzen duen printzipioa.

c) Arduradunek urrats guztiak bete direla idatziz jasotzea eskatzen duen printzipioa.

113. artikulua.– Eskumenak.

1.– Lege honetako 111. artikuluko 2. paragrafoko a), b) eta c) idatzi-zatietan zehaztutako eragiketak sailburu bakoitzaren eskumenekoak dira. Hala ere, gastua egiteko baimena ematea Jaurlaritzarentzat gordetzen da, gastuaren izaera eta zenbatekoa direla eta, kontratazio-arauek eta lege mailako beste batzuek hori agintzen dutenean.

2.– Dena dela, Jaurlaritzak, sailen egitura organikoa garatuko duten dekretuen bidez, kasuan kasuko saileko beste organo batzuen esku utzi ahal izango ditu, aurreko paragrafoarekin bat, sailburuarenak diren aginpideak.

3.– Autonomia-erkidegoko Administrazioaren aurrekontuaren arloan, ordainketa-aginduak emateko eginkizuna finantzen arloko eskumenak dituen sailari dagokio.

4.– Autonomia-erkidegoko sektore publikoko organismo autonomoen eta partzuergoen eremuan, 111. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren eragiketak lehendakariari edo zuzendariei dagozkie, organismo autonomo horiek edo partzuergo horiek sortzeko legeetan ezarritakoaren arabera.

5.– Autonomia-erkidegoko sektore publikoko organismo autonomoen eta partzuergoen egitura organikoa eta jarduera-sistema garatzen duten dekretuek beste organo batzuei esleitu ahal izango dizkiete aurreko paragrafoan aipatutako eginkizunak.

114. artikulua.– Bateriaezintasunak.

Kontu-hartzailetzako eta kontabilitateko eginkizunak barne-kontrol ekonomikoaren eta kontabilitatearen arloan aginpidea duen sailari dagozkio, eta elkarrengandik eta ordainketak agintzeko eginkizuna duen zerbitzutik bereizita dauden zerbitzuek eraman-garatu dituzte aurrera.

Artículo 112.– Principios.

La regulación de la ejecución presupuestaria en su vertiente de gastos se acomodará a los siguientes principios:

a) Principio de control administrativo sucesivo de modo que todo acto integrante del procedimiento se lleva a cabo previa comprobación del correcto cumplimiento de las operaciones precedentes.

b) Principio de justificación documental de todas las operaciones integrantes del procedimiento, incluidos los libramientos a justificar.

c) Principio de constancia escrita del cumplimiento de las operaciones por parte de los responsables.

Artículo 113.– Competencias.

1.– Son competencia de cada Consejero, en el ámbito de su Departamento, las operaciones enumeradas en el párrafo 2 del artículo 111 como a), b) y c). Sin embargo, la autorización del gasto estará reservada al Gobierno en los casos en que, por su naturaleza y cuantía, así lo determinen las normas sobre contratación y otras disposiciones con carácter de ley.

2.– No obstante, el Gobierno, mediante los decretos que desarrollen la estructura orgánica de los Departamentos, podrá atribuir a otros órganos del Departamento correspondiente las competencias que, de acuerdo con el párrafo anterior, corresponden al Consejero.

3.– En el ámbito del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, las funciones relativas a la ordenación de pagos corresponden al Departamento competente en materia de finanzas.

4.– En el ámbito de los Organismos Autónomos y en el de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma, las operaciones enumeradas en el párrafo 2 del artículo 111 corresponden, en función de lo establecido en sus respectivas leyes de creación, a sus Presidentes o Directores.

5.– Los decretos que desarrollen la estructura orgánica y el régimen de funcionamiento de los Organismos Autónomos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma podrán atribuir el ejercicio de todas o alguna de las funciones señaladas en el párrafo anterior a otros órganos.

Artículo 114.– Incompatibilidades.

Las funciones de control interventor y contabilidad quedarán adscritas al Departamento competente en materia de control económico interno y contabilidad y se desarrollarán por servicios diferenciados entre sí y del de ordenación de pagos.

2. ATALA
ORDAINTZEKO AGINDUA

115. artikulua.– Finantza-plana.

Autonomia-erkidegoko Administrazioaren aurrekontuaren kontura egindako ordainketa-aginduek bat etorri behar dute Jaurlaritzak ezarritako finantza-planarekin, funtsak xedatzeari buruz finantzen arloko eskumenak dituen sailak egindako proposamenari jarraituz.

116. artikulua.– Euskarri den dokumentazioa.

1.– Autonomia-erkidegoko Administrazioaren, organismo autonomoen eta sektore publikoko partzergoen aurrekontuen kontura emandako ordainketa-aginduekin batera joan behar dute hartzekodunak prestazioa burutu izana edo dirua jasotzeko eskubidea duela egiaztatzen duten agiriek, betiere bat etorritik gastua baimendu eta konprometitu zeneko kontratu, akordio edo xedapenekin.

2.– Legebiltzarrerako aurrekontu-zuzkidurak aldira ordainduko dira Legebiltzarraren izenean, horrek eskatu ahala, eta ez zaio Jaurlaritzari horien justifikaziorik eman beharko.

117. artikulua.– Behin-behineko ordainketak.

1.– Aurreko artikuluan esandako agiriei ezin bazaie erantsi dagokien ordainketa-agindua, horiei buruzko ordainketa behin-behinekoa izango da, eta kontu horretaz araudi bidez emandako arauak diotena beteko da.

2.– Behin-behineko ordainketak egiteko aginduak eman daitezke, pertsonen eta dagokion administrazioaren bulegoen gastu-aurrerakinak emateko, horrek administrazioaren eraginkortasunari laguntzen badio.

3.– Behin-behineko ordainketa-aginduari hori eskatzen duenak idatzitako agiria erantsi behar zaio, kasu guztietan. Bertan, dagoen beharra justifikatuko du, eta kopurua dagokion ordainketa-kredituari egotziko zaio.

118. artikulua.– Behin-behineko ordainketak justifikatzea.

Behin-behineko ordain-aginduen ondorioz hartutako funtsak zertan erabili diren, hartzaileak eskuratzen dituenetik hasi eta hilabeteko epearen barruan justifikatu beharko du. Epe hori luzatu egin ahal izango du barne-kontrol ekonomikoaren eta kontabilitatearen arloan aginpidea duen sailburuak eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko organismo autonomoetako lehendakariak edo zuzendariak, kasuan kasuko egoeraren arabera. Hiru hilabete baino gehiago luzatzekotan, sailburu horren onarpena beharko da, kasu guztietan.

SECCIÓN 2.^a
LA ORDENACIÓN DEL PAGO

Artículo 115.– Plan financiero.

La expedición de órdenes de pago con cargo al Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma habrá de acomodarse al plan que en su caso establezca el Gobierno, a propuesta del Departamento competente en materia de finanzas, sobre disposición de fondos.

Artículo 116.– Documentación soporte.

1.– Los mandamientos de pago expedidos con cargo a los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma, de los Organismos Autónomos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma deberán acompañarse de la documentación acreditativa de la realización de la prestación por el acreedor o de su derecho a la recepción del importe, todo ello en concordancia con los contratos, acuerdos o disposiciones en base a los cuales se autorizó y comprometió el gasto.

2.– Las dotaciones presupuestarias de la Sección del Parlamento Vasco se librarán en firme periódicamente a nombre del mismo, a medida que éste lo requiera, y no estarán sujetas a justificación alguna ante el Gobierno.

Artículo 117.– Libramientos provisionales.

1.– Si los documentos a que se refiere el artículo anterior no pudiesen acompañarse al correspondiente mandamiento de pago, el libramiento de éste tendrá el carácter de provisional y se llevará a cabo de acuerdo con las normas reglamentarias que se dicten al respecto.

2.– Podrán librarse mandamientos de pago provisionales para la entrega de anticipos de gastos a personas y dependencias de la respectiva administración cuando así lo exijan razones de eficacia administrativa.

3.– Los mandamientos de pago provisionales se acompañarán, en cualquier caso, del documento expedido por el solicitante del mismo en el que se justifique su necesidad y se imputará al correspondiente crédito de pago.

Artículo 118.– Justificación de los libramientos provisionales.

La aplicación de los fondos recibidos en virtud de mandamientos de pago provisionales deberá justificarse por su receptor en el plazo de un mes contado desde su entrega. Este plazo podrá ser ampliado por el Consejero competente en materia de control económico interno y contabilidad, por los Presidentes o Directores de los respectivos Organismos Autónomos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma en función de las circunstancias de cada caso. La ampliación por plazo superior a tres meses requerirá, en todos los casos, la aprobación del Consejero citado.

119. artikulua.– Behin-behineko kredituak.

1.– Artikulu honen 3. paragrafoan aipatzen diren kasuetan, Jaurlaritzak, aurrekontuen arloan aginpidea duen sailak proposatuta, autonomia-erkidegoko Administrazioaren, bere administrazio-organismo autonomoen edo sektore publikoko partzuergoen aurrekontuen gastuen egoera-orrian behin-behineko ordainketa-kredituak sartzeko baimena eman ahal izango du, gehienez ere dena delako entearen gastuen egoera-orrian baimendutako ordainketa-kredituen % 5 ekitaldi osorako.

2.– Behin-behineko ordainketa-kredituak sartze horrek horien konturako ordainketa-agiriak egin ahal izatea ekarriko du.

3.– Artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatutako kasuak honako hauek dira:

a) Kreditu gehigarri baten lege-proiektua Legebiltzarrean aurkeztu den unetik hasita. Hori gertatzen denean, kreditua zertarako den jasotzean zenbatekoak ezingo du lege-proiektuan eskatutakotik gora jo.

b) Lege bat indarrean jarri denetik hasita, lege hori betetzeko kreditu gehigarri bat egitea beharrezkoa bada.

4.– Artikulu honetan aipatzen diren behin-behineko kredituak horrelakoak direla adierazten duen programa berezi batean sartuko dira, eta gero, dagokion kreditu gehigarria ontzat ematen denean, behin-betiko programara aldatuko dira.

120. artikulua.– Behin-behineko kredituak eze-reztea.

Aurreko artikuluan aipatzen den kreditu gehigarri-rako lege-proiektua onartu ezean, edo artikulu horretan jasotzen den baimena dela-eta benetan egindako gastuetatik beherako zenbateko baterako onartzen bada, gastu horien zenbatekoa ezereztu egingo da, Jaurlaritzak, aurrekontuen arloan aginpidea duen sailak proposatuta, zehaztutako aurrekontu-partiden kontura.

121. artikulua.– Ordaintzeko bideak.

